

itzulpena: Nagore Tolosa



# Ingeboris Bachman



**Munduko  
Poesia  
Kaierak**

# **Ingeborg Bachman**

itzulpena: NAGORE TOLOSA

 **Susasa** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© Ingeborg Bachman

© itzulpenarena: Nagore Tolosa

© edizio honena: Susa

2015eko urria

Munduko Poesia Kaierak

bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola

<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.eus](mailto:susalit@armiarma.eus)

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Alemaniano gerraondoko idazle gehienek egoera muturreko bati egin behar izan zioten aurre. Ez soilik materialki herrialde suntsitu bat berreraiki behar izan zutelako, baizik eta kulturalki, nazismoaren ondoren, idazteari esanahai berri bat aurkitu behar izan ziotelako. Guztiek erantzun behar izan zioten alde edo moldez galdera berari: nola idatzi nazismoaren ondoren? Nola idatzi hizkuntza batean non goitik-behera dagoen errejimen makur hark kutsatua? Horixe izan zen *Gruppe 47* izeneko literatur taldearen bueltan bildu zirenek erantzun behar izan zioten erronketako bat. Horien artean zen Ingeborg Bachman austriarra.

1926an Klagenfurt-en jaioa, filosofian doktoratu zen 1949an Vienako Zirkuluko kide zen Victor Kraft-en zuzendaritzapean idatzitako tesi batekin, zeinetan Martin Heideggerren filosofiaren harrera kritikoa aztertutuen. Egiazki, auzi filosofikoekiko kezka bizitza osoan izan zuen, eta arrasto sakona —nahiz eta ez erabat agerikoa— utzi zuen halaber bere poesian. Urte gutxiren buruan argitaratu zuen bere lehenengo poesia liburua, 1953ko *Die gestundete Zeit* (*Gerora-ko utzitako denbora*), hain justu *Gruppe 47*k ematen

zuen saria eskuratu zuena. Lehen liburu haren ondoren Erromara joan zen bizitzera eta han idatzi zuen 1956an argitatu zuen bigarren poema liburua, *Anrufung des Grossen Bären (Hel-deia Hartz Handiari)*, Bremen-go Literatur Saria jaso zuena.

1956tik aurrera ez zuen poema liburu gehiago argitaratu; zenbait poema solte idatzi zituen, gutxi izanagatik garrantzia handia dutenak Bachmannen obraren baitan. Horien artean da *Delikatessenik ez*, neurri batean Adornoren *dictum* sonatuari —Auschwitz ondoren ezin dela poesiarik idatzi— heltzen diotena. Bachmannentzat, Adornoren gisara, poesia idazteak konpromiso etiko sakon bat eskatzen baitzuen, eta horren ezean hobe zen idazteari uztea. Eta hala-xe egin zuen berak, elkarrizketa batean arrazoitzen zuenez: “*Idazten* banekiela baina idazteko beharrik ez nuela susmatzen hasi naizenean utzi diot poesia idazteari”. Izan ere, Bachmannen poesian konstante bat da hizkuntzarekiko kezka, hizkuntza eta bere mugei buruzkoa, eta horrekin hertsiki loturik, egiari buruzkoa, akaso azkeneko poemetan —*Egiazki, Zuek hitzok, Delikatessenik ez* bera— agerikoagoa dena. Kezka hori haren filosofo kutunarengandik zetorkion, Ludwig Wittgenstein-engandik. Bestetik, batez ere

*Hel-deia Hartz Handiari* poema liburuan, nabarmena da naturaren presentzia —irakur *Azalduidazu, maitasuna!* edo *Hizketa eta esamesa*— eta hango hizkuntzaren joria, zeinak bilduma honetako beste poeta austriar batengana —Georg Traklengana— garamatzan, nahiz eta, haren espresionismotik nahiko aparte ibili zen Bachmann. Kronologikoki apailatutako antologia honetan, azkeneko hamar aleak 2000. urtean Bachmannen senideek publikatu zuten *Ich weiss keine bessere Welt (Ez dut mundu hoberik ezagutzen)* liburitik hartutakoak dira. Han jaso zituzten idazleak hil aurreko azkeneko urteetan idatzi zituen poema amaitugabeak, beste hizkuntzetara oraindik apenas itzuli direnak.

Poesiaz gain, irratinobelak idazteagatik lortu zuen sona literatur munduan. Bi ipuin liburu eta nobela bat (*Malina*) idatzi zituen halaber; azken honetan oinarritutako filma 1991n estreinatu zen, Elfriede Jelinek-en gidoiarekin. Erlazio estua izan zuen garaiko beste zenbait idazle ertaeuropar gorenekin, tartean, Max Frisch —bikotekide izan zuen— Paul Celan eta Anna Akhmatova-rekin, zeinari *Egiazki* poema eskaini zion. Bachmannen konpromisoaren berri ematen digu Akhmatova tarteko gertatutako pa-

sadizo batek. Piper Verlag argitaletxea utzi zuen Bachmannek hango editoreak Akhmatovaren *Requiem* poema liburuaren —stalinismoko Purga Handiko desmasiak oinarri dituena— itzulpena Hans Baumann gazteri hitlerriaren buru ohiari eman zionean. Ezagun denez, Bachmannentzat literatur kontuak ez ziren jolasa.

BEÑAT SARASOLA

---

# Joatea

Kea ari du lehorretik.  
Ez begietatik galdu arrantzale-etxola txikiak,  
apaldu egingo baita eguzkia,  
zuk hamar milia atzean utzi baino lehen.

Mila begiko ur ilunak  
bits zuriko betileak jaso ditu;  
beha izango dituzu, handi eta finko,  
hogeita hamar egunez.

Itsasontzia bortitz zabuka  
eta ibilera zalantzazkoan badoa ere,  
eutsi tinko gainaldean.

Arrain keztatua ari dira jaten orain  
mahaian eserita;  
gero gizonen belauniko jarri  
eta sareak konponduko dituzte,  
lo egingo dute gauez,  
ordubetez eta ordu biz,  
eta eskuak leunduko zaizkie,



gatzetik eta oliotik garbi,  
leun, zatituko dituen  
ametsaren ogia bezain.

Jo du itsasertza gaueko lehen olatuak.

Zuganaino iritsi da bigarrena.

Baina zorrotz begiratuz gero,

zuhaitza ikusiko duzu

setati, besoa altxata

—dagoeneko errotik ebaki dio bat haizeak,

—eta pentsatzen duzu: noiz arte,

noiz arte

etsiko dio egur bihurriak eguraldiari?

Ez da beste ezer ikusten lehorretik.

Zeure burua esku batez hondarretan iltzatu bazenu

edo ile-xerlo batez labarrera lotu.

Oskolen barrura ufaka, uhinen gandorrera lerratu

dira itsas munstroak,

eta ganean zamalka, puskatan moztu dute eguna

sable distiratsuz; lorratz gorri bat

utzi dute uretan, hantxe hartu zaitu loak

gainerako orduetan,

eta zentzumenak ahuldu zaizkizu.

Baina bada zer edo zer lokarriekin;  
hots egin dizute, eta behar zaituztelako  
poztu zara. Lana da  
onena, oso urrutira  
doan itsasontzian;  
lokarriak lotzea, ura ateratzea,  
hormak irazgaitz bihurtzea, zama zaintzea.  
Onena nekatuta egotea da eta iluntzean  
abailtzea. Onena da, goizean,  
lehen argitan, oskarbitzea,  
zeru mugiezinari begira zutik,  
ur igaroezinari jaramonik egin gabe,  
ontzia uhinetatik gora jasotzea,  
behin eta berriz itzultzen den eguzki ertzerantz.

---

# Agurra Ingalaterrari

Ozta zapaldu dizut lurra,  
herrialde isil hori; ozta harri bat ukitu.  
Hain gora eraman ninduen zure zeruak,  
eta hain ezarri ninduen hodeietan, lanbroan eta  
urruntasunean,  
aingura botatzerako,  
utzia baitzintudan,

Itsas haize leunez eta haritz hostoz  
itxi zenizkidan begiak.  
Ene malkoez ureztaturik,  
ase, sendatu zitzaizkizun belarrak.  
Ene ametsetatik libre,  
ausartu zen eguzkia ateratzera,  
baina guztia desagertua zen berriro,  
zure eguna hasi orduko.  
Guztia geratu zen esan gabe.

Txori handi grisak hegaldatzen ziren kalean  
barrena,  
eta arroztu egiten ninduten.

Izana al nintzen hemen inoiz?

Ez nuen nahi inork ni ikusterik.

Zabalik ditut begiak.

Itsas haize leuna eta haritz hostoa?

Itsasoko bihurguneen pean,  
ez zu, baizik nire arimaren lurraldea  
ikusten dut amore ematen.

Ozta zapaldu dizut lurra.

---

# Iluna esatea

Orfeok bezala heriotza  
jotzen dut bizitzaren harietan;  
eta lurraren eta zerua kudeatzen duten  
zure begien edertasunaz  
iluna besterik ez dakit esaten.

Ez ahaztu, zeuk ere, halako batean,  
goiz hartan, kanpamentua  
artean ihintzaz umel zegoela, eta krabelina  
bihotz ondoan lo zenuela,  
ibai iluna ikusi zenuela,  
aldamenetik igarotzen.

Isiltasunaren haria  
odolaren uhinean tenkaturik,  
bihotz ozenetik heldu nizun.  
Ile-xerloak gauaren  
adats itzal bihurtu zitzaizkizun,  
ilunpeko maluta beltzek  
begitartea elurtu zizuten.

Eta ni ez naiz zurea.

Diogu biok orain arranguraka.

Baina Orfeok bezala, badut neuk ere  
bizitzaren aditza heriotzaren harian,  
eta nigan urdindu da  
betiko itxita duzun begia.

---

# Zamaontzi handia

Kargatu dute udako zamaontzi handia,  
prest dago portuan eguzkiontzia,  
zure atzean kaioak murgildu eta deiadar egitean.  
Kargatu dute udako zamaontzi handia.

Prest dago portuan eguzkiontzia,  
eta brankako irudiaren ezpainetan,  
ahalkegabe ageri da lemurren irria.  
Prest dago portuan eguzkiontzia.

Zure atzean kaioak murgildu eta deiadar egitean,  
hondoratzeko agindua iritsi da mendebaldetik;  
baina begiak zabalik itoko zara eguratsean,  
zure atzean kaioak murgildu eta deiadar egitean.

---

# Udazkeneko maniobra

Ez dut neuk esan; atzo izan zen. Uda-diru  
hutsala sakelan, etzan gara berriz  
erdeinuaren galautsetan, denboraren udazkeneko  
maniobran.

Txoriei ez bezala, guri ez datorkigu ondo  
hegoalderanzko ihesbidea. Igarotzen dira, iluntzean,  
arrantzontziak eta gondolak, eta batzuetan  
amets beteko marmol-izpi batek jotzen nau,  
edertasunak errazen eraso diezadakeen honetantxe,  
begian.

Egunkarietan asko irakurtzen dut hotzari  
eta haren eraginari buruz, ergelei eta hildakoei  
buruz,  
deserriratuei, hiltzaileei eta miriada  
izotz-puskei buruz; ezer gutxi, ordea, kontsolatzen  
nauenari buruz.

Zergatik behar luke bestela? Atea ixten diot  
muturrean  
eguerdiz etortzen den eskaleari, bakean bizi  
baikara,



eta batek halakoak ikustea saihets baitezake; ez,  
ordea,  
euripean hostoak goibel hiltzen.

Egin dezagun bidaia bat! Goazen altzifreen,  
are palmondoen edo laranjondo sailen pean,  
merke-zurrean, ilunabar  
paregabeak ikustera! Goazen  
erantzun gabeko eskutitzak biharko ahaztera!  
Mirariak egiten ditu denborak. Komeni ez zaigunean  
datorkigu, ordea,  
errua joka: ez gaude etxean.  
Bihotzaren sotoan, loak hartu ezinik, neure burua  
dakusat berriz,  
erdeinuaren galautsetan, denboraren udazkeneko  
maniobran.

---

# Gerorako utzitako denbora

Sasoï latzagoak datoz.  
Ostertzean agertuko da  
hurrengo agindura arte utzitako denbora.  
Aurki oinetakoak lotu beharko dituzu  
eta txakurrak zingiretako etxoletara bueltan  
eraman.

Izan ere, hoztu egin baitira haizetan  
arrainen tripa-barruak.  
Argi motela egiten dute eskuzuriek.  
Tankera hartu diozu behelaino pean:  
ostertzean agertuko da  
hurrengo agindura arte utzitako denbora.

Beste aldean, hondarretan sartu zaizu maitea,  
haren ile izurtuan gora igo da,  
hitza kendu dio,  
isiltzeko agindu,  
hilkorra iritzi dio,  
eta agurrerako gertu egongo da,  
besarkada bakoitzaren ostean.

Ez alden du begirada.  
Lotu oinetakoak.  
Eraman bueltan txakurrak.  
Jaurti arrainak itsasora.  
Itzali eskuzuriak!

Sasoï latzagoak datoz.

---

# Egurra eta txirbila

Ez dut hitzik egin nahi liztortzarrei buruz,  
ezagutzeko errazak dira-eta.

Abian diren iraultzak ere  
ez dira arriskutsuak.  
Zalapartaren segizio,  
heriotza adosten dute beti.

Aldiz, kasu, egun bateko euliei eta emakumeei;  
igandetako ehiztari,  
apaintzaile, zalantzati, asmo oneko,  
destainarik jaso gabeei.

Zotzak eta enborrak ekarri genituen basotik,  
eta ez zitzaigun eguzkirik atera luzaroan.  
Uhal garraiatzailetako paperaz hordi,  
honezkero ez dut ezagutzen ez adarrik;  
ez goroldiorik, tinta ilunetan ondurik;  
ezta, enbor-azalean zizelkaturik, hitza ere,  
egiazko eta ozar.

Zakarretarako papera, pankartak,

afixa beltzak... Gau eta egun,  
dardara egiten du fedearen makinak,  
izar honen edo haren azpian. Baina egurrean,  
berdea den artean, behazunduna;  
mingotsa den artean, gertu nago  
hasieran zer gertatu zen idazteko.

Zaudete erne!

Airean ateratako txirbilen arrastoei segika doa  
liztortzar andana, eta putzu bazterrean,  
behin ahuldu gintuen tentaldiari  
eutsiko dio  
neure ile laztuak.

---

# Tema eta bariazioa

Ez zen eztirik izan uda hartan.

Erreginek beste nonbaitera eraman zituzten  
erlauntzak,

egun bakarrean agortu zen marrubi-saila,  
garaiz erretiratu ziren etxera marrubi-biltzaileak.

Lo batera eraman zuen goxotasun hura guztia  
argi-izpi batek. Nork egin zuen lo hura garaia baino  
lehen?

Eztiak eta marrubiek? Oinazetik libre da  
dena emanda datorkiona. Eta ez du ezer behar.

Ez du ezer behar; apur bat baino ez,  
atseden hartzeko edo tente ibiltzeko.

Beheraino makurrarazi zuten leizeek eta itzalek,  
ez baitzion ezein herrialdek babesik ematen.

Mendialdean ere ez zen salbu,

—partisano bat, munduak bere satelite hilari  
entregatu ziona, ilargiari.

Oinazetik libre da dena emanda datorkiona,

eta zer ez zioten ba eman? Kakalardoen kohortea  
borrokan zebilkion eskuan,  
suteek erredura-markez josi zioten aurpegia eta  
kimera gisa  
agertu zitzaion iturria begien aurrean,  
halakorik ez zen lekuan.

Eztia eta baiak?

Usaina aditu izan balu, aspaldian segituko zion.  
Sonanbuloaren loa ibileran,  
nork egin zuen lo hura garaia baino lehen?  
Zahar jaiotakoren batek  
eta agudo iluntasunera joan behar duenak.  
Aurretik eraman zion  
goxotasun hura guztia argi-izpi batek.

Biraoa egin zuen tu lehortea dakarten  
laharretara. Garrasi egin  
eta aditu zuten;  
garaiz erretiratu dira etxera marrubi-biltzaileak!  
Sustraia altxatu zenean  
eta haien atzetik txistuka lerratu,  
sugearen larruazal bat geratu zen, zuhaitzaren  
azken geriza.

Egun bakarrean agortu zen marrubi-saila.

Beheko herrixkan, hutsik eta danbor  
bilakatzeko gertu zeuden baldeak etxartean.  
Eguzkiak jo  
eta heriotza atabaldu zuen.

Kolpetik itxi ziren leihoak,  
erreginek beste nonbaitera eraman zituzten  
erlauntzak,  
eta ez zien inork ihesa galarazi.  
Basak eman zien babesa;  
garo arteko zuhaitz barne-hutsa,  
lehen estatu librea.  
Zizta egin zion ezten batek azken emakumeari;  
ez zuen minik hartu.

Ez zen eztirik izan uda hartan.



---

# Eguerdian garaiz

Isil ari da berdatzen ezkia uda hasiberrian,  
urrutiko hirietatik itzulirik, distira gabe ageri da  
eguneko ilargia. Eguerdia da dagoeneko;  
dagoeneko bizkortu da turrusta iturrian;  
dagoeneko hasi da alegietako txoriaren hego

lumatua

hondakinen azpitik ateratzen,  
eta ernaltzen ari den garitan hondoratu da  
eskua, harriak botatzeagatik itxuragabetua.

Alemaniko zeruak lurra belzten duen tokian,  
gorrotoarentzat hobi bila dabilkio aingeru

lepamoztua,

eta bihotzaren goporra eman dizu.

Muinoaren atzean desagertu da eskukada bete  
oinaze.

Zazpi urte geroago,  
ostera akordura datorkizu,  
ate aurreko iturrian:

ez begiratu sakonegi,  
gainezka egingo dizute begiek.

Zazpi urte geroago,  
gorputegi batean,  
urrezko edalontzi osoa  
hustuko dute atzoko borreroek.  
Hondora egingo dizute begiek.

Eguerdia da dagoeneko, errautsetan  
tolestu da burdina, arantzan gora  
altxatu dute bandera, eta hemendik aurrera,  
behialako ametsaren arroka gainean  
soldaturik geratuko da arranoa.

Esperantza baino ez da uzkurtuko argitan itsu.

Hautsizkiozu kateak, eramanzazu  
hegalean behera, ezarriozu  
eskua begi gainean, ez dezala itzalak  
kiskal!

Alemaniko lurak zerua belzten duen tokian,

hitzen bila dabil hodeia eta isiltasunez betetzen du  
kraterra,  
udak euri-errepikaren pean haiek aditu aurretik.

Herrialde osoan barrena ahopeka dabil esanezina:  
eguerdia da dagoeneko.

---

# Egunero

Orain gerra ez dute deklaritzen,  
jarraitu baizik. Eskandaluzkoa  
egunerokoa bihurtu da. Borrokatik urrun  
dabil heroia. Su-zelairaino  
eraman dute makala.

Pazientzia da eguneko uniformeak;  
merezimendua, esperantzaren  
bihotz gaineko izar ziztrina.

Beste ezer gertatzen ez denean  
ematen dute,  
tiro-hotsak mututzen direnean,  
etsaia ikusezina bihurtzen denean,  
eta betiereko armamentuaren itzalak  
zerua estaltzen duenean.

Ematen dute  
banderak abandonatzeagatik,  
lagunen aurrean adorea erakusteagatik,  
sekretu duintasun gabeak haizatzeagatik  
eta agindu orori  
men ez egiteagatik.

---

# Mezua

Atera da eguzkia gorpuz epelduriko zero-ataritik.  
Han ez da hilezkorrik;  
guduan eroriak baino ez, jabetzen gara.

Eta distirak ez du usteldurarekin lanik hartzen. Gure  
jainkotasun  
historiak hilobi bat utzi digu prest,  
nondik berpiztea ezinezkoa den.

---

# Gaueko ihesa

Zerua da gure soroa,  
motorren izerdiaz goldatua,  
gaua bekoz beko duela,  
loaren arriskupean—

kalbario eta hileta-txondorren gainean amestua,  
munduaren teilatupean, haizeak teilak  
eraman badizkio ere — eta orain euria, euria, euria  
dugu etxean, eta saguzarren  
hegaldiitsuak errotetan.

Nor bizi zen han? Noren eskuak ziren puruak?  
Nork piztu zuen argia gauez,  
mamuak mamuari ote?

Altzairuzko hegoen babespean, galdekatu dituzte  
instrumentuek espazioa, kontrol-erlojuek eta eskalek  
hodei lahardiak, eta doi-doi ukitzen du maitasunak  
gure bihotzaren hizkuntza ahaztua:  
labur eta luze luze... Ordubetez aritu da  
kazkabarra, gurekiko uzkur, entzun eta  
desitxuratzen duen

belarriaren danborra jotzen.

Ez eguzkia, ez lurra, ez dira sartu;  
astro gisa mugitu dira, ezagutezin, ez besterik.

Itzulerak ez du axola,  
ezta zamak eta sarekadak ere  
abiapuntu izan genuen portuan.

Tratularienak dira  
Indiako espeziak eta Japoniako zetak,  
arrainak sareenak diren gisan.

Baina usain bat aditzen da,  
kometei aurrea hartzen diena,  
eta aire-ehuna,  
eroritako kometek urratua.  
Bakartiaren estatusa esango diogu,  
zeinengan harrimena mamitzen den.  
Beste ezer ez.

Goratu gara, eta hutsik daude komentuak,  
sendatzen eta irakasten ez duen ordena bat  
onartzen dugunez gero.

Ez da pilotuen kontua tratuan aritzea. Baseetan  
finkaturik

dituzte begiak eta magalean, zabal-zabalik,  
gehitzekorik ezer ez duen mundu baten mapa

Nor bizi da hor behean? Nor ari da negarrez ...

Nork galdu du etxeko giltza?

Nork ez du ohea aurkitu, nork egin du lo

atarian? Nor ausartuko da, goiza heltzean,

zilarrezko lorratza interpretatzera: begira, nire  
gainetik ...

urak osteraren errotaren gurrupilari eragiten dionean,  
nor ausartuko da gauaz akordatzera?



---

# Arrosa-ekaizpean

Noranahi goazela ere arrosa-ekaizpean,  
gaua arantzek argitzen dute, eta hostoen  
trumoia, zuhaixka artean hain isila zena,  
orpoz orpo datorkigu segika.

---

# Akabo jokia

Neba maitea, noiz eraikiko dugu baltsa bat  
eta zeruan behera nabigatuko?

Neba maitea, laster handiegia izango da zama  
eta hondora joango gara.

Neba maitea, paper gainean herrialde eta  
burdinbide asko  
marraztu ditugu.

Kasu hemengo marra beltzei,  
airean gora aterako zara minek jota.

Neba maitea, zutoinari  
lotuta geratu nahi dut eta garrasi egin.  
Baina zu ordurako heriotzaren ibarretik at  
zamalkatuko zara  
eta ihes egingo dugu biok.

Buhameen kanpamentuan eta basamortuko dendan,  
esna,  
iletik tantaka darigu hareara.  
Ez zure adina, ez nirea, ezta munduarena ere

ez da urtetan neurtzen.

Ez zaitzatela engaina ez bele asmotsuek, ez  
armiarma-beso itsaskorrek  
ezta sasiarteko lumak ere,  
eta ez jan ez edan pagotxen aterpean.  
Faltsua da eltze eta pitxerretako aparra.

Urrezko zubian, lupuaren maitagarriari esan  
beharreko  
hitza zein den dakienak baino ez du irabaziko.  
Barka hau esatea, baina azken elurtean  
lorategian desagertu zen.

Harri asko eta askoren kausaz ditugu oinak hain  
minbera.  
Sendatu egin zaigu bat. Salto egin nahi dugu haren  
gainean,  
haurren erregea, bere erreinuko giltza ahoan duela,  
gure bila etorri eta kantari hasiko garen arte:

Garai polita da datilak hezurra ernarazten  
duenekoa.

Erortzen den orok ditu hegoak.

Titare gorriak josten ditu pobreen azpildurak  
eta nire zigiluan erori da zeure barneko hostoa.

Lotara joateko ordua dugu, maitea; akabo jokoa.  
Behatz puntetan. Ohe atorra zuriak buiatuak.  
Etxea xarmatua dagoela esango digute amak eta  
aitak  
arnasa trukutzen dugunero.

---

# Hel-deia Hartz Handiari

Hartz Handi, zatoz behera, gau tximatsu,  
hodeilarruzko hori, begi zahardun,  
izarbegidun,  
ñirñirka, sarritasunean barrena bide egiten dute  
zure hanka atzapardunek,  
izarratzaparrek,  
ernai eusten diegu abere multzoei,  
gatibaturik dituzu, ordea, eta ez gara fio  
zure saihetsalde unatuez eta erdi-agerian dituzun  
hortz zorrotzez,  
Hartz zahar.

Pinaburu bat; zeuen mundua.

Zuek: haren ezkatak.

Bultza egiten diet, amilka daramatzat

hasierako izeietatik

amaierakoetaraino,

ufa egin, muturrean dastatu

eta atzaparka egiten diet.

Beldur izan edo ez izan,

bota txanponen bat limosna-zorrora eta eman  
gizon itsuari hitz on bat,  
Hartza uhalez lotuta eduki dezan.  
Eta gatz-pipertu ondo arkumea.

Bai bailiteke Hartz honek  
aske ospa egitea, beste mehatxurik ez egitea,  
eta paradisutik amildu diren  
izei handi eta hegodunetatik eroritako  
pinaburu guztien atzetik segika joatea.

---

# Curriculum vitae

Luzea da gaua,  
luzea hil ezin duen  
gizonarentzat, eta luzaroan  
dabilzkie kordokan begi biluziak  
kaleargien pean, eta pattar hatsaz  
itsuturiko begiak eta azazkal barrenetako  
haragi busti usainak  
ez dute ez beti goxatzen, oi jauna,  
luzea da gaua.

Makinen sabeletik atera nintzelako  
ez zait ilea urdintzen.

Arrosa Gorrik galipotez igurtzi zizkidan kopeta  
eta xerloak, itoa zioten  
ahizpa elur zuria. Ni, ordea,  
tribuaren buruzagi hamar mila bider ehun mila  
arimako

hirian barrena joan nintzen, eta arima kukurutxak  
zapaldu nituen oinez, larruzko zerupetik  
zintzilik, hotz, hamar bider ehun mila  
bake-pipa zirela. Aingeruen sosegua

opa izan diot neure buruari sarri,  
eta ehiza-barrutiak, adiskideen  
garrasi indargabeez  
beteak.

Hankak eta hegoak zabalik,  
gainera igo zait gazteria; igo dira  
simaurraren gainera, jasminarenera  
erro koadroaren sekretua duten  
gau-tontorretarantz, eta ordua joan ordua etorri,  
leihoa gandutzen dit herioren sagak.  
Emaidazue esne-belarra eta isuridazue  
gure zaharren barrea  
eztarrian behera; orri-pilaren gainean  
kuluxka bat egiten dudan bitartean,  
amets lotsagarrian,  
ezin dezadan pentsatu,  
sugetan zirpiltzen diren  
mortxilekin josta nadin.

Gure amek ere egin zuten amets  
haien gizonen etorkizunarekin,  
ahaltu ikusten zituzten,  
iraultzaile eta bakarti;





ez nuen ogia zatitzen.

Garai hantusteetan

arin joan behar du batek argi batetik

bestera, herri batetik

bestera, ostadarraren azpian,

konpasaren punta bihotzean,

gaua erradio gisa hartuta.

Ireki alderik alde. Mendietatik

lakuak ikusten dira, lakuetan

mendiak, eta hodei-eserlekuetan

kulunka mundu bateko

kanpaiak. Mundu hori norena den

jakitea galarazi didate.

Ostiral batez gertatu zen

—neure biziaren alde ari nintzen barau egiten,

limoi ura zerion aireari

eta hezurra nuen aho sabaian sartuta—:

arraina erdiz erdi zela, eraztun bat atera nuen,

jaio nintzen egunean jaurti eta

gauaren uholdean erorita hondoratutakoa.

Gauera jaurti nuen berriz ere.

Oi, ez banintz heriotzaren beldur!

Hitza izango banu,

(ez nuke okerrekoa emango);

bihotzean kardurik ez banu,

(ez nuke eguzkia arbuiatuko);

ahoa gutziarik ez banu,

(ez nuke basa-urik edango);

betazalik zabalduko ez banu,

(ez nuke soka ikusiko).

Zeruari tiraka ari dira?

Lurrak eutsiko ez banindu,

aspaldian nengokeen,

aspaldian nengokeen,

gauak nahi nauen tokian,

hark sudur-zuloak ireki

eta apatxa jaso aurretik,

ostiko bat emateko

beti emateko.

Beti gaua.

Inoiz ez eguna.

---

# Etxerako bidea

Giltzalore eta hirusta  
sorginduen gauean,  
bustizkidazu oinak,  
arinago ibil nadin.

Atzetik datorkidan banpiroak  
haurraren ibilera entseatzen du,  
eta aditzen dut nola ari den arnaska,  
pausoa gurutzatzen duenean.

Aspalditik ote dabilkit segika?  
Baten bat mindu ote dut?  
Salba nazakeen hori  
ez didate eman oraindik.

Lastoek kanpatzen duten tokian,  
arroka zuloaren alboan,  
iturriaren aho zahar eta argitik  
atera da:

“Galdu nahi ez baduzu,

ez geratu hor luzaroan,  
entzun giltzak dilinka,  
zatoz basetxera!

Haragi huts hilko da  
dagoeneko ezer maite ez duena,  
eldarnioaren eta tristuraren berri  
besterik ematen ez duena.

Abaildu ninduen  
gaitzaren indarraz,  
hegoak zabaldu  
eta badoa banpiroa ihesean,

mila buru altxatu ditu,  
lagun eta etsai aurpegiak,  
eraztuna txikitzen duen  
Saturnoren itzalpean.

Garondoko azalean  
orbaina geratuz gero,  
berde eta zaratarik egin gabe  
irekiko dira ateak.

Eta nire odolez  
dirdira egiten du zelai atariak.  
Estalizkidazu begiak, gau,  
baboaren kapelaz.

---

# Azalduidazu, maitasuna

Pitin bat altxatu zaizu kapela; diosal egin eta  
haizean kulunkatu da,  
hodeiak ukitu ditu zure buru estaligabeak,  
beste nonbait du egitekoa zure bihotzak,  
hizkuntza berriak bereganatu ditu zure ahoak,  
neurrigabe ari da hazten lurreko din-dil belarra,  
hara-hona putz egiten die udak asterrei,  
malutek itsuturik jaso duzu aurpegia,  
barre egin duzu, eta negar, eta zeure azpian zautza,  
beste zer gerta dakizuke—

Azalduidazu, maitasuna!

Buztana txundimen jostagarrian zabaldu du  
indioilarrak,  
tente-tente du usoak lumazko lepoa,  
urrumaz bete-betea zabaldu da airea,  
deiadar egin du ahate arrak, basoko ezta  
jan du herrialde osoak, urrezko hautsez daude  
lore-sail guztiak parke barean.

Lotsagorritu egin da arraina; taldeari aurre hartu  
eta haitzuloetan barrena, koral-ohetuei batean murgildu  
da.

Herabe dabil arrabioa, harearen musika zilarkararen  
hotsean dantzari.

Urrutira usaindu du kakalardoak ederretan  
ederrena;

haren sena banu, neuk ere igarriko nion  
hegoak dirdiraka dituela oskolpean,  
eta ospa egingo nuen, urruneko marrubi-sailetara!

Azalduidazu, maitasuna!

Urak badaki hizketan,  
olatu eskutik helduta doa olatuarekin,  
aleak bete, lehertu eta erori egin dira mahastian.  
Hain xalo atera da barraskiloa etxetik!

Harri batek badaki beste bat samurtzen!

Azalduidazu, maitasuna, nik azaldu ezin dudana:  
zer eman behar da denbora lazarri eta labur hau,  
pentsamenduen konpainian eta bakarrik,  
maitasunik ezagutu gabe eta maitasunik egin gabe.



Pentsatu egin behar du batek? Ez dute haren falta  
sumatuko?

Zuk diozunez, hartuko du beste arimaren batek  
kontuan...

Ez azaldu ezer. Ikusi dut  
su guztiak zeharkatzen dituela arrabioak.  
Hotzikararik ez du atzetik segika eta ez dio ezerk  
minik ematen.

---

# Publizitatea

Baina nora joango gara

*lasai, ez kezkatu*

ilundu eta hotz egiten duenean

*ez kezkatu*

baina

*musikarekin*

zer egingo dugu

*alai eta musikarekin*

eta pentsatu

*alai*

amaieraren bat ikusirik

*musikarekin*

eta nora eramango ditugu

*hobe*

urteroko gure galderak eta erauntsiak

*amets-garbigailura, lasai, ez kezkatu*

Zer gertatuko da, ordea,

*hobe*

heriozko isiltasuna

agertzean

---

# Hizketa eta esamesa

Ez zaitez atera gure ahoetatik,  
herensugeak ereiten duen hitz.

Egia, itotzeko moduko beroa egiten du,  
apar egosia eta ozpindua dario argiari,  
eta zingiraren gainetik, beltz-beltz, eltxo-xingola bat  
dago zintzilik.

Zurrutean gustura dabil astaperrexila,  
zabal-zabal ageri da lurrean katu-larrua,  
orroka ari zaio gainean sugea,  
dantzari dator arrabioa.

Ez zulatu gure belarriak,  
beste inoren erruaren zurrumurru;  
hil zaitez, hitz,  
zingiratik ateratzen den urmaelean.

Geratu gure ondoan, hitz,  
gure pazientzia  
eta pazientzia falta samurraz. Akabera behar du  
ereinaldi honek!

Ez du piztia harrapatuko haren hotsa imitatzen  
duenak.

Maitasun oroz gabetuko da bere ohearen sekretuak  
salatzen dituenak.

Ergelak sakrifikatzeke balio du hitzaren sasikumeak.

Nork eskatu dizu arrotz honi buruzko juzgu bat?

Eta inork eskatu gabe ematen baduzu, segi oinez  
gau batetik bestera,

haren zauriak orpoetan dituzula, segi, eta ez itzuli.

Geratu gure ondoan, hitz;

landua, argia eta ederra.

Akabera behar du, baiki;

zaude jakinaren gainean.

(Gibelka doa karramarroa,

gehiegi luzatu zaio loa satorrari,

ur bigunetan desegin da harriak

elkarrekin eusten zituen karea).

Zatoz, hotsaren eta hatsaren grazia,

sendotu aho hau,

ahuldadeak jota,  
izutzen eta kikiltzen garenean.

Zatoz eta ez egin zezelka,  
gaitz askoren aurka ari gara-eta borrokan.  
Sutara eroriko da esku hau,  
herensuge-odolak kontrarioa babestu aurretik.  
Salba nazazu, ene hitz!

---

## Egia den hori

Egia den horrek ez dizu harea botatzen begietara;  
egia da loak eta herioak barkamena eskatzen  
dizutela

barne-barnetik, min bakoitzak hala aholkatuta;  
egia den horrek lauza kentzen dio zure hobiari.

Egia den hori hain dago murgildua, hain da lausoa  
ernamuinean eta hostoan; eta mingain aho nagian,  
urtebetez, beste urte batez eta urtero—  
egia den horrek ez du denbora irabazten, berdindu  
baizik.

Egia den horrek artesia egiten dio lurrari,  
ametsa, koroa eta mandatuak garbitzen ditu;  
handik bildutako fruituz gizenduta  
sartzen dizu orrazia eta guztiz zaitu edaten.

Egia den hori ez da gertatzen  
harik eta erasoaldian dena jokatzeko duzun arte.  
Haren harrapakina zara zure zauriak zartatzen hasi  
orduko;

ez zaitu mendean hartuko traizionatzen ez zaituen  
ezerk.

Pegarra bete damu dator ilargia.  
Edan zure neurria. Badator gau samina.  
Zabor malutak jausi dira usoen lumadira,  
adar bat ere ez dute babespean jarriko.

Katez hertsaturik eusten diozu munduari;  
egia den horrek, ordea, arrakalak egin dizkio  
hormari.

Ilunpean esna, aurrez aurre duzun  
irteera ezezaguna zaintzen duzu.

---

# Herri lehensortua

Hegoaldeko herri lehensortura  
aldatu nintzen eta aurkitu nituen, biluzik eta  
pobreturik,  
eta gerriraino itsasoraturik,  
hiria eta gotorlekua.

Hautsak lotara eramanda  
nentzan argitan,  
eta goitik, zuhaitz eskeleto bat nuen zintzilik,  
gatz ionikoz estalirik.

Ez zetorren loaldirik handik.

Han ez da erromerorik loratzen,  
txoriek ez dituzte iturrian  
kantuak berritzen.

Hegoaldeko herri lehensortuan  
nigana egin zuen jauzi sugedorriak,  
eta argipean, izularria.



O, itxi begiak,

itxi!

Estutu ahoa hozkaren kontra!

Eta neure burua edan nuenean

eta herri lehensortua

lurrikarek astindu zutenean,

esnatu eta begira jarri nintzen.

Bizitza etorri zitzaidan.

Han harria ez dago hilda.

Ziztuan ateratzen da metxa,

begiratu batek pizten duenean.

---

# Erroma gauez

Zabuaren taulak goraka  
zazpi muinoak bahitu ostean, ur ilunetara  
ere lerratzen da  
gure zamaz eta estutuz,

ibaiaren lokatzetan murgiltzen da, harik eta gure  
magalean  
arrainak biltzen diren arte.  
Bulkada batez abiatuko gara,  
txanda heltzen zaigunean.

Lurra jo dute muinoek,  
haietara igo eta gauarekin  
partekatu ditugu arrain guztiak.

Ez du inork jauzi egiten.  
Jakina baita, maitasunak baino ez gaituela jasotzen,  
eta batak bestea.

---

# Itzala arrosak itzala

Zeru arrotz baten pean  
itzala arrosak  
itzala  
lur arrotz baten gainean  
arrosen eta itzalaren artean  
ur arrotz baten barruan  
neure itzala.

---

# Haurridetasuna

Zauria jotzea da dena,  
eta inork ez du inor barkatu.  
Minduta, zu bezala, eta mingarri,  
bizi nintzen zugana.

Gogoen arteko fereka, purua  
eta ukitu bakoitzaz areagotzen dena,  
isiltasun hotzenera itzulita  
bizi dugu, zahartu ahala.

---

# [ez agindu sinesmenik leinu honi]

Ez agindu sinesmenik leinu honi,  
nahikoa dira izarrak, itsasontziak eta kea,  
gauzak beretzen ditu, izarrak  
eta zenbaki infinitua zehazten,  
baina bada zirrimarra bat, maitasunarena, demagun,  
guztiaren gaineratik dagoena, garbiagoa dena.

Zimeldurik dago zerua eta askatu egin dira izarrak  
ilargiarekin eta gauarekin duten loturatik.

---

# Hôtel de la Paix

Isilka egin du horman behera arrosa-zamak,  
eta zorua eta lurra agertu dira alfonbra artetik.

Lanparari argi-bihotza hautsi zaio.

Ilunpea. Urratsak.

Kisketari eman diote herioren aurrean.

---

# Erbestea

Nora gabe dabilen hildako bat naiz  
inon izena eman gabea  
ezezaguna prefektuaren erresuman  
soberakoa hiri urrekaretan  
eta berdatzen ari diren zelaietan

aspaldi arbuiatua  
eta oinordetzan ezer jaso gabea

Haizea, denbora eta hotsa besterik ez  
jende artean bizi ezin duena

Ni neure alemanarekin  
hodei hauek inguruan  
etxetzat horixe  
hizkuntza guztien barrena

Oi, nola goibeldu den  
tanta ilun euri tonu horiek  
bakanka ari dira erortzen

Argiuneetara jasoko du orduan hilotza.

---

# Uholde honen ondotik

Uholde honen ondotik,  
usoa ikusi nahi nuke  
eta usoa baino ez,  
beste behin salbatua.

Itsaso honetan hondoratuko nintzateke,  
aireratuko ez balitz,  
ez balu azken orduan  
hostoa ekarriko.



---

# Miriam

Nondik datorkizu ile beltz hori,  
almendra hotsa duen izen gozoa?  
Ez duzu distira egiten, gaztea zarelako soilik —  
goiza da zure lurraldea, duela mila urtetik hona.

Hitzeman Jeriko, esnatu salmo-liburuak,  
jaria daitezela zure eskutik Jordango iturburuak,  
eta ezustean, harri bihur hiltzaileak,  
bai eta, une batez, zure bigarren lurraldea ere!

Ukitu harrizko bularrak eta egin miraria,  
har dezatela azpian malkoek harria.  
Eta bataia zaitzatela haien ur kiskalietan.  
Izan oraindik arrotz, gu geu ere areago arrotzu arte.

Elur bat eroriko da zure sehaskan maiz.  
Izotz hotsa adituko da irristailuen azpitik.  
Garaitua izango da mundua, ordea, lo betean  
zaudela.

Atzera ekarriko ditu urak Itsaso Gorriak!

---

# Korrontea

Bizitzatik hain urrun eta heriotzatik hain gertu,  
orain ezin bainaiz inorekin horretaz eztabaidan  
aritu,  
erauzi diot neure puska lurrari;

ziri berde bat sartu diot bihotz erdian ozeano  
bareari  
eta neure burua hondartu dut.

Aireratu dira eztainuzko txoriak, eta kanela-usaina!  
Bakarrik nago nire hiltzailearekin, denborarekin.  
Mozkor eta urdin, krisalidara sartuko dugu geure  
burua.

---

# Alde, pentsamendu

Alde, pentsamendu, hitz argi bat hegan egiteko  
hego zaizun heinean, zu jasota joango baita,  
metal arinak kulunkatzen diren,  
haizea zorrotz den,  
armek era bakanean,  
ulertzeko beste modu batez,  
hitz egiten duten lekura.  
Defenda gaitzazu hor!

Uretan zebilen egur-zatia uhinak jaso duen arren,  
hondoratu egin da.  
Sukarrak bere egin zintuen arren, erortzen utzi  
zaitu.  
Mendi bat baino ez du mugitu fedeak.

Bego dagoena; alde, pentsamendu!

Gure minari esker baino ez da gailentzen.  
Euts gaitzazu erabat!

---

# Maitasuna: kontinente iluna

Piztiaren atzaparra erakutsi du errege beltzak,  
usna egin dio hamar ilargi zurbilen arrastoari,  
eta aginduak eman dizkie euro tropikal handiei.  
Beste mutur batetik so duzu mundua!

Arrastan eraman zaitu itsasoan barrena,  
urrezko eta bolizko kostaldeetarantz, bere ahorantz.  
Belauniko ibili zara han erabat,  
arrazoirik gabe arbuiatu eta hautatu baitzaitu.

Eta eguerdiko aldaketa handia agindu du.  
Beira berde eta urdinetan kraskatu da haizea,  
eguzkiak arrainak egosi ditu azaleko uretan,  
eta sutan da belarra bufalo sailaren inguruan.

Karabanak hemendik haraindi joan dira itsuturik,  
eta zigorraz jo ditu lurralde mortu osoko dunak,  
oinetan sua duzula ikusi nahi zaitu.  
Hondar gorria darie zure larruazaleko ildoiei.

Alboan duzu bera, iletsu, koloretsu,  
atzaparrez heldu dizu, sarea bota dizu gainetik.  
Liana sokak lotu zaizkizu aldaken jiran,  
iratze orritsua kizkurtu lepoan gora.

Hasperenak, garrasiak, oihaneko horma-hobi  
guztietatik.

Fetitxea jaso du. Hitza itzuri zaizu.

Danbor ilunak ari dira jotzen egur gozoak.

Non hilko zaren begira zaude liluraturik.

Begira, gazelak hegan haizeetan,

bide erdian datil-erlauntza bat!

Dena da tabua: lurrak, fruituak, uharrak...

Besotik zintzilik duzu suge kromatua.

Intsigniak eman dizkizu eskuekin.

Zeuk eraman koralak, zoaz eldarnio argian!

Erreinuari erregea ken diezaiokezu,

haren misterioa ikusi duzu, zerorri misterioetsua  
izanik.

Ekuatorean behera datoz langa guztiak.

Bakarrik dago pantera maitasunaren gelan.

Heriotzaren haranetik honantz egin du jauzi  
eta atzaparrekin herrestan darama zero-muga.



---

## Igarobaimena (Aria II)

Loak mozkorturiko txoriekin  
eta haizeak alderik alde tirokaturiko zuhaitzekin  
esnatu da eguna, eta kopa aparduna  
hustu du itsasoak haren osasunean.

Ibaiak borborka doaz ur handirantz,  
eta lurrak, lore freskoz,  
aire garbiko maitasun-promesak  
ezarri ditu ahoan.

Lurrak ez du ke-onddorik eraman nahi,  
ez die izakiei zeruaren aurrean tu egingo,  
ez ditu, hondamenaren ahots entzunezinaz,  
euria eta hirazko tximistak ezabatuko.

Neba nabarrak eta ahizpa grisak  
nola esnatzen diren ikusi nahi du gurekin;  
arrain erregea, bere gorentasun urretxindorra  
eta suaren printzea, arrabioa.

Koralak landatu dizkigu itsasoan.



Isiltasuna gordetzeko agindu die basoei,  
sustrai ederrak hazteko marmolari,  
eta ihintzari ostera errautsen gainean ibiltzeko.

Lurrak igarobaimena eduki nahi du unibertsora,  
egunero, gauaz geroztik,  
mila eta bat goiz izan daitezen,  
edertasun zaharraren grazia gaztean.

---

# Zuek hitzok

*Nelly Sachs lagun eta poetari, ohorez.*

Zuok hitzok, altxa, zatozte nire atzetik!  
Eta dagoeneko elkarrengandik urrun, urrunegi  
bagaude ere, aldendu egingo gara  
beste behin, amaierarik ezerantz.

Ez du argitzen.

Hitzak  
atzetik arrastaka eramango ditu  
beste hitz batzuk;  
esaldia esaldia.  
Munduak nahi luke  
bere burua bortxaz ezarri  
behin betiko,  
dagoeneko esana izan.  
Ez esan.

Hitzok, zatozte nire atzetik,  
ezer behin betiko izan ez dadin

—ez hitzekiko irrika hau  
ezta esanaren kontraesana ere.

Oraingoz, beude, tarte batez.  
Ez dadila sentimendurik adierazi,  
landu dadila bihotzaren giharra  
beste era batera.

Beude, diot, beude.  
Ez bekigu, belarririk gorenera,  
ezer, diot xuxurlaka,  
heriotzaz bururatu.  
Beude, eta datozela nire atzetik, ez gozo,  
ez zakar,  
kotsolamendurik gabe,  
esangurarik gabe,  
eta zeinurik gabe.

Ez etorri: hautsez harilkaturiko  
irudia, silaben  
burrumba hutsa, herio hitzak.

Herio hitzik ez,  
zuok, hitzok!

---

# Egiazki

*Anna Akhmatovari*

Hitz batek sekula astindu ez duen bati,  
badiotsuet,  
bere burua soil-soilik hitzez  
laguntzen dakienari—

ezin zaio lagundu.  
Epe laburrean ez  
ezta luzean ere.

Esaldi iraunkor bakar bat sortzea,  
hitzen kalakan eustea.

Inork ez du esaldi hau idatzi,  
izenpetu ez badu.

---

# Bohemia itsaso ondoan dago

Etxeak hemen berdeak badira, etxe batera sartuko  
naiz.

Zubiak hemen osorik badaude, lur ziurretan ibiliko  
naiz.

Maitasun lanak galdu badira, gustura galduko ditut  
hemen.

Ni ez banaiz, ni bezain ona den bat izango da.

Hitz bat hemen mugakide badut, utziko diot  
mugakide izaten.

Bohemia oraindik itsaso ondoan badago, itsasoan  
sinetsiko dut berriz ere.

Eta itsasoan sinetsiz gero, lurra espero dut.

Ni banaiz, ni adina den edonor izango da.

Ez dut besterik nahi niretzat. Hondora joan nahi  
dut.

Hondora —hau da, itsasora, han aurkituko dut  
berriz ere Bohemia.

Hondoa jota, lasai esnatuko naiz.

Hondarrean orain badakit ez nagoela galduta.

Zatozte, zuek, bohemiar, marinel, portuetako puta  
eta ontzi ainguratu gabe

guztiok. Ez al duzue bohemiar izan nahi, zuek,  
iliriar,

veronar eta veneziar guztiok. Antzestu barre  
eginarazten diguten komediak,

eta negar egiteko direnak. Eta erra zaitetze ehun  
aldiz,

ni erratu eta probak inoiz gainditu ez nituen  
moduan;

egin, bai, behin eta beste behin.

Bohemiak gainditu zituen moduan eta egun polit  
batez

itsasorantz barkatua izan eta orain ur ondoan  
dagoen moduan.

Ni oraino hitz batekin eta beste lurralde batekin  
mugan banago,

edozerekin nago mugan gero eta gehiago, beste  
ezer gutxiren gisa;

bohemiak bat, goliardo alderrai bat, ezer ez duena,  
ezerk gerarazten ez duena,  
itsasoak, zalantzati, nik hautaturiko lurraldea  
ikusteko  
hornitu duena.

---

# Praga, 64ko urtarrila

Gau harez geroztik,  
banabil eta hitz egiten dut berriz,  
belarrira bohemio ematen badu ere,  
ostera etxean banengo bezala,

non Moldavaren, Danubioren  
eta haurtzaroko ibaiaren artean,  
guztiak dakien zerbait nitaz.

Ibiltzea, pausoz pausokoa, itzuli da;  
ostera ikasi dut ikusten, ikusia izaten.

Artean makurturik, begiak kliskatuz,  
leiho alboan egoten nintzen;  
begira, urte ospelak,  
izarrik ez  
ahotik zintzilik,  
nola urruntzen ziren muinoaren gainetik.

Hrad?anyn barrena  
goizeko seiak aldera,



koskorrak kendu zizkieten  
Tatrako elur-kentzeko makinan  
atzapar pitzatuek izotz-geruzari.  
Zartatzear zeuden blokeen azpitik,  
neuretatik, baita neure ibaitik ere,  
aske atera zen ura.

Uraletaraino entzuten zen.

---

# Galera mota bat

Elkarrekin erabiliak: urte-sasoiak, liburuak eta musika.

Giltzak, te-katiluak, ogi-zorroa, maindireak eta ohe bat.

Hitzen eta keinuen arreo bat ekarria, erabilia, xahutua.

Etxeko araudia behatua. Esana. Egina. Eta eskua beti luzatua.

Neguaz, Vienako septeto batez eta udaz maitemindu naiz.

Mapez, mendiko herrixka, hondartza eta ohe batez. Kultu bihurtu ditut datak, ezin baliogabetuzkotzat jo promesak,

miresmena izan diot zerbaiti, gupida ezerezari,

(— egunkari tolestua, errauts hotza, paper-zatia ohar batekin)

izukaitz erlijioan, ohe hau eliza.

Pintura agorrezina, laku bati begira egotetik.

Balkoitik herritarrak, agurtuak izateko gogoz  
bizilagunak.

Kolorerik biziena sutondoaren aldamenean,  
segurtasunean neure ileak.

Ateko txirrina, neure poztasunaren alarma.

Ez zaitut zu galdu,  
mundua baizik.

---

# Enigma

*Hans Werner Henze-ri, Ariosien garaietatik*

Ez da beste ezer etorriko.

Ez da sekula udaberririk izango.

Hala iragarri dute milaka urteko egutegiekin,  
edozeinek daki.

Baina antzera udarekin ere, eta “uda giro”  
eta gisako hain izen onak dituztenekin—  
ez da sekula beste ezer etorriko.

Ez egin negar,  
dio musikak.

Bestela,  
inork  
ez dio  
ezer.

---

# Delikatessenik ez

Dagoeneko ez dut ezer gogoko.

Zer egingo dut

metafora bat

almendra-lore batez apaindu?

Sintaxia

argi-efektu batean gurutziltzatu?

Nork hausten du kaskezurra

gauza hain azalekoengatik—?

Zentzuduna izaten ikasi dut

hor ditugun

hitzekin

(klase apalenentzat)

gosea

lotsaizuna

malkoak

eta

ilunpea.

Araztugabeko negar-zotinekin,  
etsipenarekin  
(eta etsipenak etsiak hartuta nauka)  
hainbeste miseria dela-eta,  
gaixoen egoera, bizitzaren kostua dela-eta,  
moldatuko naiz.

Ez diot idazkera zaintzeari utzi,  
neure burua zaintzeari baizik.  
Besteek badakite  
jainkoak badaki  
zer egin hitzekin.  
Ni ez naiz neure laguntzailea.

Zer egingo dut  
pentsamendu bat atxilotu,  
esaldi-ziega argiztatu batera eraman?  
Begi eta belarriei  
kalitate oneneko hitz mokaduak eman?  
Bokal baten libidoa aztertu,  
gure kontsonanteekiko suharra ikertu?

Zer egin behar dut  
harrikaturiko buruarekin,

esku honen idazteko inarrosaldiekin,  
hirurehun gauetako presiopean,  
papera hautsi,  
akuilaturiko hitz-operak erraztatu,  
eta horrela ezereztu: ni zu eta hura

gu zuek?

(Izan bedi. Izan bitez besteak.)

Nire partea, gal bedi alferrik.

---

# Alderdian sartzea

Ez ote da pertsona bat garrantzitsua bere  
haurrideentzat?

Gezurrez belzten, tu eta iseka egiten eta izena  
kentzen diote,  
edonork daki, froga ezin daitekeen egintza on  
bategatik.

Berriketaldi bakoitzean ahoz aho  
anekdota ziztrin gisa saltzen dute begiramena.  
Kide maratzen mesedetan asasinatzen dute  
sentimendu gehiegizkoa.  
Lanpetua dago eskrupulu eza  
diru-sarreren adierazpenarekin.

Bizitza bakan bat esperimentu bihurtua.  
Horixe erdietsi dute. Tratua eginda.

Puztu-puztu egindako untxia,  
laborategiko proba ostean larrua erortzen zaiona;  
arratoia, indizioak hartuta,



hiltzailearen besoari hozka egiteko ere kordea  
galdua duena;  
euliak, pozoituriko puntak begira dituztenak;  
euren eskubideen gutuna eskatu gabe duten  
eltxoak;  
burkideak ditut denak.

Neure ezdeustasunaren aldeko eskubidea  
aldarrikatzen dut.

Baina jainkoa berraragitu  
eta saio-hodi batean sartuko balitz eta bere koloreen  
profesa egingo balu, hau da, maitasunik egon  
balego,  
zalantza egingo nuke halakorik gerta ote daitekeen,  
eta ez ninduke gehiegi kontsolatuko.

Badakit hemen biktimak elkarretaratu  
behar direla, nahiz eta oraindik ez diren euren  
artean ados jarri.

Eulien espezieak pare bat egun nahi ditu; pariak  
postontziko zirrikituari begiratu bat eman;  
erabat umiliaturiko arratoiek, niak  
mendekua, ohoregabeturik hil baino lehen—  
gupida hitz bat.

Etsi du komunak.

Parez pare du interesak sortzen dituen  
anckereriaren kapitalak  
badoan min baten kapitala.

Hala ere, epaia bere buruari ematen dio jendarte  
honek.

Hiltzea ez, baizik eta altxatzea  
da hitza. Esplotazioarekiko  
begiramenik gabe, esplotazio hau  
suntsitzea. Badator iraultza.

Badator; etor dadila, beraz.  
Zalantzan nago. Baina badator  
iraultza; baita neure bihotzekoa ere.

---

[dena galdua,  
lehenengo poemak]

Dena galdua, lehenengo poemak,  
gero loa; horrez gain, eguna,  
eta egunari dagokion beste guztia,  
eta gauari; gero beste ezer ez,  
hori ere galdua; gero eta gehiago  
ezer ez baino gutxiagora arte; neu,  
ezer ez zena.

Erretira barneko hinterlandera,  
idatziz berretsitako urteak eta ikusitako lekuak  
begi bistan, non dagoeneko ez den ez lurrik,  
ez laidorik; atzerago  
bada oraindik lekua, eremu zabaletako  
atzapar lepo-bihurritzaileak gorren jira-bueltan, eta  
mutuenean,  
garrasien luzerako eremu zabal argiak harentzat,  
badator mutuarazlea.

Mututuarentzat mortua,  
hari bat ikusten du garbi,

eromena iruten duena emeki  
beirazko hotel bat margotzen duen arte.

---

# [ez dut mundu hoberik ezagutzen]

Ez dut mundu hoberik ezagutzen.

Moral gaizberak ezer gutxiren esperantza uzten dio  
biktimari.

Bakarrik dagoela, torturatuari  
galdera zital bat, ohoreagatik. Bizirauteak  
merezi duela erakutsi, erasoan.

Biktimaren moral gaizberaz libratu;  
altxa dadin, hil-korrokak  
beste ordu bat irabazten ahalegindu daitezten.  
Izan ere torturatuarentzat hil-korroka horiek  
biktimaren moral gaizberaren  
seinale baitira.

Galdera zitala  
torturatuari baino ez.  
Egunen batean galdera zitalari  
erantzuna, isila eta behin-betikoa.

Galdera zitalak —ez dohatsuei egindakoa;  
haiei ez zaie galdera zitalik egiten—

pairatzen dituztenek  
badute erantzun bat.

Galdera zitalak jasotzen dituztenek, galderak egiten  
uzten dute.

Arima eder horiek...

---

# Ez dut mundu hoberik ezagutzen

Mundu hoberen bat ezagutzen duenak egin dezala  
pauso bat aurrera.

Bakarrik, adorerik gabe, eta listu hau garbitu gabe,  
eraman listu hau musuan  
koroatze batera joango balitz bezala, ordaina hartua  
balu bezala, komunioan  
nahiz haurrideen artean. Untxi ahula,  
arratoia, eta hemen eroritakoak, den-denak,  
orain ez daude bakarrik, beldurrez,  
itzultzearen ametsa  
armatzearen ametsetan, itzultzearen  
ametsetan.

---

# Susmoa

Eragindako mihia,  
susmo txarrekoa, gero eta hitz gehiago  
milikatzen ditu, hortz-akatsetatik  
lerdetzen dira, tu  
zer edo zer jatorra, zer edo zer bilaua,  
zer edo zer arbuioa, erdiko tonu  
batek jotzen du,  
tu, zer edo zer txundigarria,  
ozena, zaratatsua,  
eta ez du ezer harritzen,

ordea, begiak gero eta handiagoak eta gero eta  
hunkituagoak,  
gero eta handiagoak, eta munduak  
talka egiten du eta gaua tantaka  
sarrera-gune zimurtuetatik,  
dagoeneko begian puntu itsurik ez,  
gero eta handiagoa begiratzea, begiestea

Ez beste ezer esan, begiratu  
eta begietsi, begira aurre eta atzeak,



zeure begi handitu eta zaintsuetan  
gaua tantaka ari zaizun bitartean, itzuli negarrez,  
itzuli ikusten duzuna negarrez, isur  
dadila, isur dadila mundua  
zure masailetan behera

Bota esanez zure hitz-hornidura,  
bota negarrez, bota esanez, aho lotsatiz,  
mihi eskale txiki hori,  
berorren maiestate begiak egingo du bestela.

ulertu — ez ulertu.

---

# Hots-hesia

Soinu eztanda  
alfonbra, zabala eta ozena,  
atzean ireki zaizu herrestan,  
zarata handiagoa egiten du, guztiak  
egiten du zarata eta ozena  
zarata, dar-dar egiten dute  
zure etxe guztiek,  
oinak zapaltzen  
dizu burua,  
zeure jabetza guztiek,  
pentsamenduek, oroitzapenek  
gainlasterraldia  
inoiz zeurea izan gabeko  
abiadura batean  
zorakeria hau ez da,  
ezer ez da, eta  
ez dabil urrun,  
bum izugarri baten  
azpian, makurturik,  
zure gainean, goian  
hots-hesia zeharkatzen duzu  
gorantz.

Makurturik, goi-goian zaude  
eta bidaiari ekiten diozu  
piltzar eta armazoi distiratsuekin,  
josturak urratuta eta  
zoroindar bat, zeinaren barruan sartzeko  
zerua bigunegia baita  
eta lurra gogorregia.

---

# Aurkitutako tonua

Tonua aurkitu dute,  
are, tonua,  
axola ez duen hots-muga,  
hots-hesia  
hain dago bakarrik,  
hain bakarrik, ezer  
ez baitzaio iristen;  
zeharkatuko duen  
hegaldirik ez,  
hots-hesian,  
intziria  
gorpuz  
eri eta zahar batena,  
bere errazioarekin.

Zentzu  
errazio bat, zorion  
errazio bat, gehienetan  
aski errazio bat.

---

# Errazioak

Zorionaren errazio nekaezina xahutua,  
fedearen hiru apurrak  
irentsiak, esperantza eta maitasuna  
kontrako eztarritik joanak, bat  
zintzur-hestean trabatu, beharbada  
maitasuna, itolarriaren arriskua,  
arnasestua, sorbaldan jo,  
bizkarrean jo,  
itolarriaren arriskua,  
behera joango da edo ahotik jaurtiko da.

Errazioak, koipe txartelak  
nerbioentzat, arropa txartelak  
biluztasunarentzat, liburuan itsatsita  
premiazko artikuluen txartelak,  
honezkero existitzen ez direnenak.  
Ez da beste ezer behar.  
Diru pixka bat, pattar  
tanta bat.

---

# Garrasiak galtzen zaizkit

Garrasiak galtzen zaizkit  
beste bati dirua  
legez, txanponak,  
bihotza; garrasitzarrak  
galtzen zaizkit  
Erroman, edonon,  
Berlinen, kalean  
galtzen zaizkit garrasiak,  
benetakoak, garuna odolez  
gorritzen zaidan arte,  
dena galtzen zait,  
edozein egunetan  
edonon  
edonori garrasiak galtzearen  
izu-laborria  
izan ezik.

---

[aske utzi zaituztet,  
neure burgesak]

Aske utzi zaituztet, neure burgesak, hobe zuetako  
ehunka

inoiz besarkatu izan ez banitu, zuek bai, neure  
gizonok

azpikeriazko kastitatez aho hanpatuak

eta nire shock moderatua eta baldarra dastatu ditut,  
gozatu. Arnasa hartzen nuen: gehiago. Gehiago  
zuengandik, gehiago nigandik,  
gehiago guztiongandik.

Akabera eman diot jabetzan izan duzuen

matxinada mutu honi, iseka egin dizuet, iseka egin  
diet zuen jabetzei, mendean

izan duzuen elbarriari, ez nintzen ni, gorputz enbor  
hil bat baizik,

eskumotz hau, ez besterik — Arnasa hartzen nuen:  
gehiago.

Lotsa galdu dut orgia honetan,

doilorkeria burgesa zuena, aspertzearen

umiliazioa, eta bere espiritua bezain bizirik den

haragi honen gaineko juzgu estua.

Basamortuak aurrez aurre jarri dit harea, neure  
bihotz mortuaz  
baino ezin nintzen aritu lehen, orain basamortu  
zoragarria dut, hondarrezko errezelak erantzi ditu,  
dunek hartu dute,  
begiratua baretu dit marrazki infinituak,